



Galdera bat

Gako-hitzak:
etxea, umea, identifikazioa, fatxada



Irati Mendizabal (6 urte) eta June Garcia (7 urte) haurren marrazkiak

Euskal Herriko edozein eskolatan, 4 urteko umeek marrazten dihardute gelan. “Etxe” bat marraztu behar dute. Segur aski gehienek baserri bat marraztuko dute. Edo bi isuri dituen eraikin bat, balkoitoa eta guzti. Gainera tximiniatik kea dario eta, noski, hodeiak, urdinak dira.



70 etxebizitza sozial Santutxun, Bilbo. Arkitektoak: Jose Maria Lapuerta Montoya eta Francisco Burgos Ruiz.


Umeari ideia bat irudikatzen erakusten zaio eskolan, horren ikaspenean gehienetan irudi estandarrek erabili ohi dituzte irakasleek. “Etxe” kontzeptuaren irudi estandarra, antza, baserria da, edo bi isuriko teilatua gainean duen karratu bat.



32 etxebizitza sozial Txurdinagan, Bilbo. Arkitektoak: David Torres Ezcurra eta Sandra Gorostiza Manzano.

Zenbat ume bizi dira baserrietan edo familiabakarreko etxebizitzetan?

Estatistiken arabera EAEn etxebizitzaren % 8,5 besterik ez da familia bakarrekoa, Nafarroan % 27,9, eta Iparraldeko 3 lurraldeak barne hartzen dituen 64. departamentuan, aldiz, etxebizitzaren % 68,5 indibidualak dira (Baionan, berriz, ia % 50 bizi da etxebizitza-erakin kolektiboetan). Ume gehienek familia askorekin partekatzen dute eraikin berbera.



85 BOE Bilbon. Arkitektoa: Miguel Gutierrez Garcia.

Beren etxea baserri batekin identifikatzen al dute? Segur aski ez. Lotzen ote dute beren senideak bizi diren espazioa, fatxadako 4 leiho eta balkoi batekin? Segur aski ez. Litekeena da beren etxebizitza usainekin, leihotik dauden ikusmirekin, soinuekin eta senideekin erlazionatzea.



212 BOE Salburuan, Gasteiz. Arkitektoa: Mariano Bayón.

Hona hemen Gasteizen eta Bilbon berriki eraiki diren zenbait BOE-etako fatxaden argazkiak. Bertan bizi diren umeez identifikatzen ote dute “etxe” kontzeptua leiho horiekin? Ba ote du eraginik umetan ikasitako ESTANDAR horrek etorkizunean izango duten etxearen idealean? Eta horretaz gain, arkitekturari buruz izan dezaketen irudi edo iritzian? Galdera bat besterik ez. ✌️



298 BOE Salburuan, Gasteiz. Arkitektoak: Javier González Lizasoain eta Sergio García Legido.

Iturriak: Arantza Idiazabal andereñoa, www.eustat.es/, www.cfnavarra.es/, www.insee.fr/, www.vitoria-gasteiz.org/ensanche21/, www.visesa.com/, www.etxebide.info